


Merkatu Segmentazioa

Hurrengo pausua, gure zerbitzu integral pertsonalizatua, zer pertsona multzori eskaintzea erabakitzea da. Gure zerbitzua, profil hauei zuzenduta dago: Nahaste psikologikoa duten edo/eta jasan duten pertsonak, zeina sasoiari jartzeko laguntza extra hori behar duten; eta bestalde, kirolari hasiberriak eta kirol elkarteak, zeina gu bezalako zerbitzu integral baten bila dabilta.



Lehenik eta behin, nahaste psikologikoak jasan duten edo jasaten ari diren pertsonak dira gure profiletako bat. Pertsona horiek igarotzen ari diren edo igaro behar izan duten prozesua edo etapa dela eta, horrek hainbat arazo dakartza. Horrek ekar ditzakeen arazo guztien artean, gure zerbitzua elikadura-arazoren bat (TCA) izan duen jendearengan zentratzen da batez ere, hala nola: anorexia nerbiosoa, bulimia nerbiosoa, atrakoiak eragindako nahasmenduak, janariarekiko adikzioa, diabulimia, obesitatea... beste hainbaten artean. Lehen aipatutako guztiek arazo larriak eragiten dituzte osasunean, fisikoan, emozionalean eta psikologikoan. Orduan hemen sartuko litzateke jokoan gure zerbitzua. Gure zerbitzuaren helburua da pertsona horiei laguntzea, eskaintzen ditugun lau zerbitzuen bitartez.

Pertsonak nahaste psikologiko bat badu edo laguntza psikologikoa nahi badu bere osasun mentala eta emozionala zaintzeko, orduan, gure lehenengo zerbitzua izango zuen, hots, psikologo bat.

Bezeraok, bestalde, anorexia, obesitatea edo bestelako elikadura-arazoren bat badu, edo soilik sasoiari jartzeko asmoarekin bere dieta hobetzea nahi badu, dieta pertsonalizatu bat jartzeko helburuarekin, gure bigarren zerbitzua eskuragarri izango zuen; nutrizionista bat.

Soilik sasoiari jartzea helburu duten pertsonak edo aurretik aipatutako elikadura-arazoei aurre egiteko ere sasoiari jarri behar diren pertsonentzako, gure hirugarren zerbitzua egongo litzateke, entrenatzaile pertsonalarena. Honek, pertsona bakoitzaren helburuaren arabera, ariketak eta horietan igaro beharreko denbora aldatu eta egokitu egingo ditu.

Azkenik, gure azken profila kirol elkarteak dira. Kasu honetan, zerbitzu osoa izango litzateke aukerarik onena; izan ere, kasu honetan, kirol-klubetaz ari gara, eta

gure zerbitzuak kirolariei laguntzen die hainbat gauzatan, hala nola: fisikoa zaintzea, egokitzen zaien dieta bat, presioari eta estresari aurre egiteko aholkuak, lesioak saihesteko ariketak... Horregatik diogu lau zerbitzuak hartzea egokia litzatekeela. Baina kasu honetan, gure zerbitzuak eskainiko liekeena kirolariei, laguntza da, bakarka zein taldean, talde gisa funtzionatzeko, eta taldeko kide gisa. Hau da, taldeak ondo funtziona dezan, gu arduratuko ginateke taldea ondo sentitzeaz, bai talde gisa, bai pertsona bakoitzak bere buruarekin. Berrero ere, aurreko bi profilekin azaldu dugun bezala, klubak gure zerbitzuren bati uko egitea erabaki eta bere plan pertsonalizatua sor dezake.

Aldez aurretik aipatutako bezala, bezero bakoitzak aukera izango du nahi dituen zerbitzuak aukeratzeko. Adibidez, izan daiteke bezero batek psikologoaren zerbitzuari eta fisioterapeutaren zerbitzuari uko egitea eta soilik entrenatzaile pertsonalaren eta nutrizionistaren zerbitzuak erabiltzea. Zerbitzuen konbinazioaren bidez, bezeroak %100ean plan pertsonalizatu bat eskuratuko du.